

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1477

603/2024 EBAZPENA, martxoaren 7koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Ainhoa Gómez Elorrieta andrea Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko Pertsonen zuzendariaren lanpostua betetzeko izendatzen duena.

Aztertu dugu Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko Pertsonen zuzendari lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori zuzendaritza nagusi honen otsailaren 5eko 201/2024 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2024ko otsailaren 16ko EHAAn (35. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak aurkeztutako merezimenduen araberako baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Ainhoa Gómez Elorrieta andrea deialdiko lanposturako proposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori guztia dela eta, zuzendaritza nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Ainhoa Gómez Elorrieta andrea Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko Pertsonen zuzendari izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2024ko martxoaren 18tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 7a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.